



## ANEXO 5

### GARDENTASUNARI BURUZKO ADIERAZPENA

#### GARDENTASUN BETEBEHARRARI BURUZKO ADIERAZPENA

*Nafarroako Berdintasunerako Institutuak Nafarroako toki entitateei dirulaguntzak emateko deialdia, 2021. urtean LGTBI+ arloko sustapen eta babes proiektuak egiteko.*

(Izena) \_\_\_\_\_, NANA \_\_\_\_\_, honako honen ordezkari  
\_\_\_\_\_, IFK \_\_\_\_\_, helbidea:  
\_\_\_\_\_, adierazpen hau egiten dut, 2021. urtean LGTBI+ arloko  
sustapen eta babes proiektuak egitearren Nafarroako toki entitateei dirulaguntzak emateko  
deialdiaren entitate onuraduna naizen aldetik.

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legeak dirulaguntzen entitate onuradunen gardentasun betebeharrak jasotzen ditu, eta zehazten da foru lege hori aplikatu behar zaiela, gardentasunari buruzko arauetara dagokienez, laguntzak edo dirulaguntzak jasotzen dituzten entitate pribatuei, 3 c) eta 12.4 artikuluetan aurreikusten den moduan.

Irailaren 11ko 59/2013 Foru Dekretuak 11/2012 Foru Legea garatu eta arautzen du zer betebehar dituzten gardentasunaren alorrean Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargurako dirulaguntzen onuradunek.

Foru dekretu horren 3. artikulua ezartzen duenez, dirulaguntzak jasotzen dituzten entitateek gardentasun betebeharra dute bi kasu hauetan:

- a) Emandako dirulaguntza 20.000 eurotik gorakoa izatea urtean.
- b) Emandako dirulaguntza entitate onuradunaren negozio-zifraren edo urteko aurrekontuaren %20tik gorakoa izatea.

*(Aipatutako mugak gainditzen ote diren kalkulatzeko, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak edo haren erakunde publikoek urte naturalean emandako dirulaguntza guztien kopuruak batuko dira).*

Aipatu foru dekretuaren 3. eta 4. artikuluetan xedatutakoari jarraituz, **ADIERAZTEN DUT** (Dagokiona adierazi):

- Entitateak ez duela gardentasunari buruzko betebeharrik** (aipatutako foru dekretuaren 3. artikuluan azaldutako inguruabarrak gertatzen ez direlako).



Informazio hori aurkeztu dudala, hain zuzen \_\_\_\_\_ (adierazi organo-emailea)k emandako \_\_\_\_\_ (dirulaguntzaren izena) dirulaguntza dela eta; **beraz, ez da errepikatu beharrik**, emandako datuak aldatu ez direlako.

**Entitateak baduela gardentasunari buruzko betebeharra** eta, horrenbestez, 59/2013 Foru Dekretuaren 4. artikuluan ezarritako informazioa ematen dela aitorten honen eranskinean, eta entitatearen urteko azken kontuen kopia eranstean dela

**EZ dagokio** betebeharrari, entitatea ez dagoelako sartuta Gardentasunari buruzko Foru Legearen 3 c) artikuluan, eta, beraz, ez dago foru lege haren mendean eta ez du betebeharrari konplitu beharrik.

\_\_\_\_\_ (e)n, 2021(e)ko \_\_\_\_\_ aren \_\_\_\_\_ (e)an

SINADURA

**Dirulaguntza:** Honentzako dirulaguntza \_\_\_\_\_

Onuraduna: \_\_\_\_\_

IFK: \_\_\_\_\_

ORGANOA	KARGUA	ORDAINKETAREN ZENBATEKOA	ORDAINKETAREN KONTZEPTUA